



**Fantasiako eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**

## Fanzineen Gerra 2019

**Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren 30. Asteak, Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegiko Autoedizioaren txokoarekin, eta FNACekin lankidetzan, berriro ekin dio Fanzineen Gerrari euskarri horien bitartez generoarekiko grina bizia aditzera eman eta aldarrikatzeko.**

Tinta eta paperezko gerra honetan Astea dela eta argitaratutako hainbat fanzine lehian arituko dira publikoaren babesa lortzeko datozen **urriaren 26a eta azaroaren 1a bitartean**.

Izena emateko epea **urriaren 17ra arte** egongo da zabalik. Antolatzaileek hautatuko dituzten 10 taldek parte hartuko dute gehienez.

Oinarriak: [www.sansebastianhorrorfestival.eus](http://www.sansebastianhorrorfestival.eus)

Inskripzioa: [guerrafanzines@gmail.com](mailto:guerrafanzines@gmail.com)

### OINARRIAK

- Gutxienez 2 kidez osatutako taldeek eman ahal izango dute izena Gerran. Izen-emateak urriaren 19ra arte (hau barne) egingo dira [guerrafanzines@gmail.com](mailto:guerrafanzines@gmail.com) helbide elektronikoa.
- Gehienez 10 talde onartuko dira. Talde bakoitzari, gehienez, banakako bi akreditazio doan emango zaizkio Asteako emanaldi guztietan sartzeko. Horren ordainetan, fanzinea egiteko konpromisoa onartzen dute. Parte-hartzaileak Astearen antolatzaileek aukeratuko dituzte.
- Talde bakoitzak izen bat aukeratu beharko du eta fanzinea paperezko 8 orrialdetan egin beharko du zuri-beltzean. Orria A-5 neurrikoa izango da.
- Fanzineen edukiak fantasiako eta beldurrezko zinemaren munduarekin, herri kulturarekin, nostalgia frikiarekin... lotuta egon behar du bere osotasunean edo partzialki. 2 orrialdek gutxienez lotura izan behar dute 2019ko Beldurrezko Astearen programazioarekin. Edukiaren zati bat aldeztatik aurretik prestatu ahal izango da. Euskaraz edo/eta gaztelaniaz sor daitezke.
- Fanzineak partaide bakoitzaren baliabide propioekin (idazkera, maketazioa...) egin beharko dira, baina Ubik Autoedizioaren Txokoak bakoitzaren esku jarritako baliabideak ere erabili ahal izango dituzte. Jendearen artean banatuko diren kopien kostua Beldurrezko Asteak ordainduko du.
- Fanzineek Beldurrezko Astearen, Tabakaleraren eta FNACen logotipoak eduki beharko dituzte. Logotipo horiek antolakuntzak emango ditu.
- Fanzine bakoitza antolakuntzari entregatu beharko zaio, parte hartuko duen talde bakoitzari esleitutako egunaren eta orduaren aurretik, artxibo digitalean (pdf, mozte-



**Fantasiako eta Beldurrezko  
Zinemaren Astea**  
**Semana de Cine  
Fantástico y de Terror**  
**Horror and Fantasy  
Film Festival**

markekin eta 3 mm-ko koskatzearekin) eta erreproduzitzeko beharrezkoa den gutxieneko kalitatearekin.

- Asteko publikoak baloratu ahal izateko, antolakuntzak fanzine bakoitzetik behar diren kopia guztiak egingo ditu.
- Talde bakoitzak 10 minutu izango ditu gehienez kanpaina egiteko, Antzoki Zaharreko publikoaren aurrean bere fanzinea aurkeztu eta bere aldeko botoa eskatzeko, antolatzaileek finkatuko dioten egunean, urriaren 26a eta 31a bitartean.
- SARIAK. Talde irabazleak FNACen erosteko hiru txartel lortuko ditu. Txartel bakoitzak 50 euroko balioa izango du. Eraitza azaroaren 1eko amaiera-ekitaldian emango da ezagutzera.

Parte hartuko duten fanzineak Zinemaldiaren webgunean jarriko dira:

[www.sansebastianhorrorfestival.eus](http://www.sansebastianhorrorfestival.eus)

### **Prestakuntza lantegia BORJA CRESPOrekin FANZINEAK, eskuz ala makinaz?**

urriak 23 / 18:00 – 20:00  
+16 urte. Izenematearekin

**Ubik, Tabakalerako sorkuntza liburutegia**

Fanzineak, eskuz ala makinaz egiten dira? Egia esan, edozein modutan. Nahi duzun eta gogoko duzun bezala. **Fanzinea formatu libre bat da, ez du mugarik, eskueran du pertsona geldiezin orok.** Folio batzuekin, arkatz batekin, kolarekin eta guraize batzuekin, autoedizioaren iraultza egin dezakezu. Tresna perfektua da esperimintatzeko eta zure lana ezagutzera emateko, analogikoa, digitala edo hibrido zoragarri bat izanda ere. Fanzinea bere nahierara mutetzen da, edo irakurlearen eta sortzailearen nahierara. **Egin zeuk bat!** Zure etxean, kafean, txokotan, bakardadean edo lagunartean.